1994ko urriak 14 250. zenb.

# ARRASATE PRESS



## Erakusketa

# 2.004. urteko Arrasate




10 urte
Euzkadi
berritzen

Euzkadi berritzearekin elkar zaitez

Eman botoa

EAJ
PNV

# Ez ezpataz, ez gurutzeaz

Euria hasi zuen iluntze batean, aterkinik ez eta taberna batetara jo genuen babes bila. Eurijasa gogor eta luzea izan zen eta bitartean, bertan zegoen jendearekin solasean jardun genuen.

Ba zen han urtetan sartutako gizon bat asko zekiena eta gustora egin ginen berari entzuten. Hauxe esan zuen beste kontu batzuen artean! "Aita Vitoriak esan zuen ezin dela inoren etxean sartu, ez ezpataz eta ez gurutzeaz ere".

Arabarra zen 1486an jaio zen Frantzisko Vitoria, erlijioso domingotarra. Salamancako teologi katedraduna izan zen eta nazioarteko zuzenbidearen oinarriak ezarriz, Ameriketako lurraldeen benetako jabeak indiarrak zirela aldarrikatu zuen. Benetan iraultzailea izan zen adierazpen hau garai hartan. Gerra batzuen legitimitatea justifikatzen ere saiatu zen geroago.

Bera indioetaz ari bazen ere, printzipio honek gaurkotasun guztia du gure artean.

Egun, Espainiako eta Frantziako erdal kulturek inguraturik bizi gara; Hego aldeko kasuan Espainiako Estatuak euskaraz mintzatzea urte luzez debekatu digulako eta ogibide baten bila hona etorritako etorkinei euskalduntzea eragotzi dielako.

Espaini osoko J.A.R.C. (Juventud Agraria Rural Católica)eko batzar batean, Euskal Herriko Baserri Gaztedikoak bertan zirela, entzuna dut nola 1965. urte inguruan Cordobatik hona lanera etorri nahi zuten gazte batzuk, ongi prestatuta etorri nahiean, galdetu ziela hango funtzionariei ea nola egin zezaketen euskaraz ikasteko, eta erantzun motza jaso zutela esanez Espainian zeudela eta ez zutela beste hizkuntzen beharrik.

Gaur ere antzeko gauzak entzuten ditugu gure artean eta euskaraz ez jakin eta ez ikasteko asmorik ez dutela esan eta gero, salbatzaile gisara eskaintzen dute beren burua Euskal Herria gobernatzeko. Zer gobernatu dezake Euskal Herriaren kultura ukatzen duenak? Non da gizalegea eta elkarrenganako begirunea?

Kondizio hauetan ezinezkoa da euskaldun eta erdaldunen arteko komunikazio ireki bat ezartzea, guk haiengana emandako pausoak ez duelako maila berdineko erantzunik, guk gaztelera edo frantsesa ikasi dugun bezala haiek euskara ikasten ez duten bitartean.

Ongi etorriak bitez geurearen errespetuan eta osagarri bezala datozen Espainiako kultura, Frantziakoa, Europakoak eta mundu guztikoak. Baina honek ez du justifikatzen gure nortasuna eta kulturaren menperaketa eta ordezkaketa, ez ezpataren indarrez (Estatuaren lege eta ejerzitoa), ez eta "hobe beharrez" zabalduagoko kultura baten izenean, ez baita kulturarik berez eta izatez beste edozein kultura baino hobe edo egokiago denik. Eta guretzako, gurea da lehena. Horrek bideratuko gaitu inguruko kulturekin berdintasuneko harremanetan jartzera.

**Rufina Olasagasti**




GATZAGAn, ERDI ERDIAN...
ZUHAITZ jatetzea




BAZKARI ETA AFARI ONENAK...
Tfnoa: 71 46 08

Memesa
79 42 22

Aldizkari honek Arrasateko Udalaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du



• ARRASATE PRESS •

**Argitaratzailea**: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

**Laguntzailea**: Arrasateko Udala. **Zuzendaria**: Arantzazu Loidi. **Kazetariak**: Itxaro Zubillaga, Maider Egües, Maria Agirre. **Publizitatea**: Jasone Mendizabal eta Ikerne Altube (77 08 15). **Administrazioa**: Agurtzane Gaintzarain eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15) **Maketazioa**: Txos Azurmendi. **Kolaboratzaileak**: Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Danel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna**: Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. Tirada: 5.500. **Lege-Gordailua**: 1124/88. **ISSN**: 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia**: Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARKO
ARRASATE KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

**Azaleko argazkia**:Udaletxeko planoa.

CARLOS MONGENROTH
FISIKOA

NEURRIRA EGINDAKO PROGRAMAZIOA

• Zure behar eta nahietara egindako programarik egokiena egingo dizugu.

• Sistema eta ekipoei buruzko aholkularitza osoa.

• Dendak eta Tabernak
• Enpresa Txiki eta Ertainak (PYMES)
• Ikastetxe eta Akademiak
• Profesionalak

*Foruen plaza, 1 -6 ARRASATE*
*Tfnoa: 79 54 87*

URRATS
AHOLKULARITZA
GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

•ARTEA•
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak, Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

"PAL"
burdindegia, brikolage eta tresneria
Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

## Maltzaga-Urbina

Ardatza egiteko proiektuaren inguruan azkenaldian gertatu direnak ikusita, honako hau jakinarazi nahi diogu iritzi publikoari:

1.- Asanblada honek bere harridura azaldu nahi du afektatutako udalei Eusko Jaurlaritzak iradokizun epean aurkeztu dien proiektuaren aurrean. Proiektu hori, 91n *Fulcrum* enpresak egin zuen autopista-proiektua hain zuzen ere, IGPek emaniko diktameneko debatea eta terminoei kasunik egin barik.

2.- Eusko Jaurlaritzaren jarrera arbuiatu egiten dugu, burlatzat jartzen baitugu, bai 36 partaideontzat (erakunde, talde sozial eta politikoentzat) eta baita, eta batez ere, 300 "herritar epaileentzat" ere, euren denboratik astebete eman zuten eta ponentziak aztertu eta iritzi bat ematen; orain errotik moztuta geratu den gatazkak gainditzeko partaidetza-prozesu batean pausoak eman dituzte eta.

3.- Bizilagun talde honi dagokionez, eta Maltzaga-Urbinaren arteko bide azkarrerako proiektu teknikoa egiteko behar izan diren era guztietako ahaleginak direla eta, gutxienik kontutan hartzea merezi dutela eta inondik ere ez mespretxurik. Are gehiago kontutan izaten badugu gure ponentzia izan zela aukeztutakoen artean gehien baloratu zena eta IGPetan izan ziren herritarrek diktaminatu zuten ardatzerako proiektu konkretu bakarra izan zela,

4.- Eztabaida publiko ireki, partaidetzazko eta gardena lortze aldera, aurkeztutako aurreproiektua erretiratzea, eta "herritar epaileen" diktamenean jasotakoen araberakoa egitea eskatzen diogu Eusko Jaurlaritzari; Debasak IGPen eredua aurrera eramateko kontratatutako Gizarteazi, berriz, udalei aurkeztutako 91ko proiektuak 94ko bizilagunen diktamena errespetatzen duen ala ez publikoki azaltzeko gonbitea luzatu nahi genioke.

5.- Gatzagako Udalak ez du negoziatu autopistaren Arlabango trazaketa; negoziatu zuena errepidearen saihesbidea izan zen eta autopistak saihesbidearen lekua hartu duenez, ez dela errepidea konpontzerik izango eta hori dela eta, ez da barruko trafikoarentzat bailarako irteera konponduko.

**Leintz Gatzaga eta Landako bizilagunen batzordea**

## FMIko batzarra

Madrilen, FMI eta BMk egindako kunbreak, munduan gertatu diren eraldaketen aurrean (internazionalizazioa, mundualizazioa, krisi ekologikoa, homogeneizazioa, pobrezi absolutuaren hedapena...) kapitalismoa berritzeko esfortzua adierazten du. Bi hauek, GATTekin batera, bigarren gerrate mundialaren ondoren diseinatutako munduak eta gaur dagoenak ere, zuzen zuzenean eragiten gaituzte.

Lehenik, Mundualizazioan, munduko bazterkeak birbanatu egin direlako, eta gero eta gehiago, 3. munduko zatiak lehen munduan txertatzen eta hedatzen doazelako (planetan zehar dauden 4.000 milioi pobreak gure artean ere birbanatzen doaztela). Krisi ekologikoa bigarren, hazkunde infinituan oinarriturik dagoen ekonomia kapitalista, mundu finitoaren aurrean agertzen delako (gero eta murriztuago, gero eta ustelago). Homogeneizazio kulturala hirugarren, kapitalismoan dagoen internazionalizazioak kultura ezberdinak, eta Estatu gabeko nazioen identitateak bereziki, gogorki erasotzen dituelako. Horrela, egun, aste bakoitzean hizkuntza zahar bat betirako desagertzen da, munduko patrimonio kulturala pobreagotuz.

**Antxon Mendizabal (Forum Alternatiboaren Ponentea eta Tailer baten arduraduna)**

## Kafe Tertulia

Igandean Arrasatearrok, H.Bk antolaturik Batasun Eguna ospatzeko aukera izango dugunez, gu "eskuz-eskuz" taldearen partaideok, ekitaldi horri kafe tertulia gehitu nahi izan diogu. Lagun artean, aukera paregabea eskeintzen dizugu gazteen arazoei buruz entzun eta hitzegiteko. Beraz igandean, arratsaldeko 4etan Bionan elkar ikusiko dugula<Ninguno>koan, begirunez.

**Eskuz-Eskuzeko**

Altzariak
Diseinua
Apainketa
ARENAZA
Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

ECUADOR
Bidaiak
Kontzeziño, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 14 06

GORKA
ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tfnoa: 77 13 78

ITSASKI
ARRANDEGIA
Arrain freskoa eta jaki izoztuak
Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

# Zer daukazu esateko txakur-kakei buruz?



**Ana Belen Benito**
**Langabetua**
**20 urte)**

Joan zen egunean umeak jolasten ari zirela txakur-kaka zapaldu zuten eta pentsatu gero zelako usaia eraman genuen. Higuingarria iruditzen zait.



**Emilio Fernandez**
**Jubilatua**
**(63 urte)**

Izugarria da, kaleak txakur-kakaz beteta daude. Agintariek neurriak hartu beharko lituzkete.



**Yolanda Perez de Arenaza**
**Langabezian (32 urte)**

Zapatu eta domeka goizetan txakur-kaka asko egoten da kaleetan. Egunkaria ere ezin izaten da irakurri. Nire ustez, jabeek batu beharko lituzkete.



**Luis Canabria**
**Langabezian**
**(59 urte)**

San Andresen, adibidez, asko egoten da. Askotan ez zara konturatzen eta zapaldu egiten dituzu. Zerbait egin beharko litzateke.



**Mertxe Azkargorta**
**Etxekoandrea**
**(72 urte)**

Nire ustez herriko kaleak nahiko zikinak egoten dira txakur-kakarekin, Ferrerias kalea batez ere .



**Justo Fernandez**
**Jubilatua**
**(68 urte)**

Herri guztian zehar egoten da txakur-kaka. Txakurrak baserrietan egon beharko lirateke.



**Maria Isabel Eguren**
**Etxekoandrea**
**(56 urte)**

Toki guztietan egoten da, batez ere azoka inguruan. Askok kalera ateratzen dute txakurra bertan egin dezan eta horretarako ez dago eskubiderik.



**Isidro Gonzalez**
**Jubilatua**
**(80 urte)**

Orain dela gutxi, txakur batek kaka egin zuen eta ostean jabeak batu egin zuen. Denek egin beharko lukete hori.


**ALDASORO OINETAKOAK**

OÑATI - BERGARA

- Gure betiko bideari jarraituz, denboraldi honetarako ere aukera aparta eskaintzen dizugu, zapata, botin, poltsa eta larruzko osagarrietan.
- Zabalera bereziko oinetakoak gizonezko eta emakumezkoentzat.
- Gazteentzako saila ere zabaldu egin dugu.

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**Eritetxeak**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ....... 79 53 00
Igualatorioa ....... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ....... 79 39 00
(emakumeak) ....... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ....... 79 90 11

**Gurutze gorria**
Bergara ....... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ....... 76 62 91

Anbulatorioak
Arrasate (Larrialdiak) ....... 79 13 57
(Txanda hartzeko) ....... 77 03 46
77 07 21
Oñati ....... 78 08 52
Eskoriatza ....... 79 98 58
Aretxabaleta ....... 79 74 58
Aramaio ....... (945) 45 51 16

**Anbulantziak**
Gipuzkoako anbulantziak ....... 45 87 44

**Udaltzaingoa**
Oñati ....... 78 04 11
Bergara ....... 76 14 69
Arrasate ....... 79 14 39
Aretxabaleta ....... 79 10 52
Eskoriatza ....... 79 03 22

**Ertzaintza**
Arrasate ....... 79 71 99

**Suhiltzaileak**
Udal taldea ....... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .78 28 00

**Matxurak**
Urak (udal zerbitzua) ....... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ....... 12 01 62
Gasa ....... 900 40 05 23
79 78 44
79 76 78

**Garraioak**
Taxiak ....... 79 12 22
P.E.S.A. ....... 79 14 19

**Hirugarren adinekoentzako zentruak**
Iturbide Egoitza ....... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ....... 79 81 57

**Kontsumitzailearentzako informazioa**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ....... 79 87 77
KIUB-OMIC ....... 79 51 55

**Monterrongo liburutegia**
Monterron ....... 77 01 05

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**Ostirala 14**
Egunez 22'00ak arte: Amezua Sta. Marina.
Gauez: Camacho. Oxiorondo. Bergara.

**Larunbata 15**
Egunez 22'00ak arte: Ruiz. Maala.
Gauez: Puy. Barrenkale. Bergara.

**Igandea 16**
Egunez 22'00ak arte: Morales. San Andres.
Gauez: Puy. Barrenkale. Bergara.

**Astelehena 17**
Egunez eta gauez: Azkoaga. Ferrerias.

**Asteartea 18**
Egunez eta gauez:Español. Iturriotz.

**Asteazkena 19**
Egunez eta gauez:Corcuera. Musakola.

**Osteguna 20**
Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

## 14 OSTIRALA

**ZINEA**
"El cliente" 7etan eta 9.30etan.

**EAJ-PNV KARABANA**
Egun osoan EAJ-PNVko kanabana ibiliko da kaleetan zehar.

**ANTZERKIA**
"Dónde estás Ulalume, dónde estás", Eolo antzerki taldearen eskutik. Elorrioko Arriola kultur aretoan, gaueko 10.30etan.

**PSOE-EE KARABANA**
Goizeko 11etatik aurrera PSOE-EEko partaideek auto kanabana egingo dute Arrasaten. Ana Miranda, Inazio Gimeno eta Maturana izango dira bertan.

## 15 LARUNBATA

**ZINEA**
"El cliente" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HAITZ ESKALADA IKASTAROA**
Urriaren 15 eta 16an, Gipuzkoako goi mendi eskolak haitz eskalada ikastaroa antolatu du Eginon. Mendi federatu karneta edukitzea ezinbestekoa da.

**GALTZAGORRI AISIALDI TALDEA**
Obenerrekan duen lokala zabalduko du. Larunbatero 4etatik 6etara 6 urtetik 11 urte bitartekoentzat egongo da zabalik. 6etatik 8etara, 11 urtetik 14 urte bitartekoentzat.

## 16 IGANDEA

**ZINEA**
"El cliente" 5etan, 7.30etan eta 10etan.

**HAUR ZINEA**
"Asterix: El golpe de menhir", Amaia antzokian arratsaldeko 5etan. Sarrera: 200 pta.

**BATASUN EGUNA**
12.30etan luntxa Arrano tabernan. 4etan gazte-tertulia Biona tabernan. 5.30etan haurrentzako jolasak Seberon. 7etan gaztainak eta buzkantzak Herriko plazan. 8etan mitina. Hizlariak: Xabier Zubizarreta eta Iñaki Antiguedad. Arrasateko HBk antolatuta.

**MENDI IRTEERA**
Besaide M.Eak mendi irteera antolatu du. Ibilbidea: Valdezcaray- San Lorenzo- Monasterio Valvanera. Irteera goizeko 7etan Garibaitik.




**TXATXILIPURDI**
Tatxilipurdi elkarteak zenbait ekintza antolatu du larunbatetarako. Haurrak eta ekintzak bi sailetan banatu ditu: "Larunblai" haurreskolako 1, 2, 3, eta OHO 1, 2, 3 eta 4. mailak. Bi ordutegi: goizeko 10etatik ordubata arte eta arratsaldez 3etatik 6ak arte. "Txatxiliartistak" OHOko 5.,6., 7 eta 8. mailak. Tailerrak arratsaldez 3etatik 6etara eta 15eko taldetan banatuko dira. Urte osoko matrikula 5.500 ptakoa da.

**EKIN EMAKUME TALDEA**
**EKIN emakume taldeak bi ikastaro antolatu ditu. Ostegunero Osasunerako elikadura, 4.30etan AEDn. Emalea: Fernando Royo. Asteartero, Otargintza, 4.30etan AEDn. Emalea: Ane Maite Tramon.**



**ERAKUSKETA**
Udal egitarau orokorraren erakusketa. Urriaren 17tik azaroaren 18ra Harresi aretoan. Ordutegia: astean zehar, 11etatik ordubatera eta 6etatik 8etara. Asteburuetan, 12etatik ordubiak arte eta 6etatik 8ak arte.

## 17 ASTELEHENA

**ZINEA**
"El cliente" 7etan eta 9.30etan.

**HITZALDIA**
Udal Egitamu Orokorraren aurkezpen hitzaldia. Euskaraz, Udaletxeko pleno aretoan, arratsaldeko 7etan.

## 18 ASTEARTEA

**ZINEA**
"El cliente" 7etan eta 9.30etan.

**LIBURUAREN AURKEZPENA**
Arrasateko Literatur Tailerra sortzeko proposamena-AEDko liburuaren aurkezpena, pleno aretoan. AEDk antolatuta.

## 19 ASTEAZKENA

**IPUIN KONTALARIA**
Koldo Ameztoi ipuin kontalaria Monterrongo haur-liburutegian, goizeko 11etan. 13 urtez gorakoentzat. Liburutegiak antolatuta.

**HITZALDIA**
Gaia:"Hauteskunde autonomikoak" 7etan Monterronen. Emalea: Bikila. Antolatzailea Zutik.

**HITZALDIA**
Udal egitarau orokorraren aurkezpen hitzaldia. Gazteleraz izango da Udaletxeko pleno aretoan 7etan.

**MAHAINGURUA ATBn**
Legebiltzarrerako Hauteskundeak. Konfirmatutako partaideak: Inaxio Oliveri (EA), Joseba Ugalde (IU), Xabier Zubizarreta (HB)

## 20 OSTEGUNA

### GAZTEAK NATURAN

"Gazteak naturan" V. argazki lehiaketako irabazleen izena emango da jakitera urriaren 21an, Monterrongo Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Aurretik 7etan ikusentzunezko proiekzio bat emango da. Gaia: "Andeak: Bolivia- Ekuador". Bideoaren egileak Rafa Berasategi eta Koke Lasa dira.





### FAMILIA ETA GIZARTE HEZKETARAKO ZENTRUA: IKASTAROAK

Famili eta Gizarte Zentruak larrugintzako hasierako ikastaroa antolatu du lehen hiruhileko honetarako. Irakaslea Marieli Otero izango da, Gatzagako artisaua. Ikasiko direnak: karterak, gerrikoak eta morrokeria egiten eta baita larruaren dekorazio artistikoa egiten ere. Asteazken eta ostiraletan emango dira klaseak, goizez 9.30etatik 11.30etara eta 40 orduko iraupena izango du ikastaroak. Gazteentzat prezio bereziak: 3. 000 pta besterik ez.
Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruak zenbait ikastaro antolatu ditu. Urriaren 18tik hasita asteartero Enkuadernazio ikastaroa emango da. 30 ordu iraungo du eta 6.30etatik 9etara izango da. Eskulanen tailerrak urriaren 17an hasiko dira. 30 orduko ikastaroa, astelehenero emango da 6.30etatik 9etara. Sukaldaritza eta postregintza ikastaroa urriaren 18an hasiko da. Astearte eta ostegunetan emango dira klaseak, goizeko 9.30etatik 11.30etara eta 6.30etatik 7.30etara. Psikologia-hezkuntza pertsonaleko ikastaroa, asteazkenero emango da arratsaldeko 4etatik 6ak arte.

### Hitzaldia

Hezkidetza izenburupean eta hezkuntzan sexu berdintasuna gaitzat harturik, Zuriñe Del Cedro eta Pilare Markuerkiagak hitzaldia eman zuten joan den ostegunean. Hitzaldian azaldu zutenez, aurrerapenak ematen ari dira baina testu liburuetan, adibidez, gizonezkoei garrantzia handiagoa ematen zaie oraindik.

### Gurutze Gorria

Irailean zehar honako zerbitzuetan eskeini zuen laguntza Deba Garaiko Gurutze Gorriak: Arrasateri dagokionez, 25 trafiko istriputan, 29 zerbitzu berezitan, oinezkoen 9 istriputan eta bestelako 41 zerbitzutan.

### Turismo mintegia

Deba Garaiko Mankomunitateak antolatuta, joan den ostegunean turismo kudeaketarako erakundeari buruzko mintegia egin zen Oñatin. Eskualdean turismo ekintzetarako zentroa zabaldu nahi du Mankomunitateak eta horretarako, beste toki batzuetako esperientziak ezagutu nahi izan zituen.



## Udalaitz Eguna

Asteazkenean Udalaitz eguna ospatu zen. Aurtengoa hogeita hirugarren ekitaldia izan da. Goizeko 11etan Meza Santua egin zen tontorrean eta bertan bi arrasatear gogoratu ziren bereziki: Iban Learreta, eskalatzen ari zela istripuz hil zen mendizalea, eta Antonio Zubizarreta, uztailean hil zen Udalaitz zalea.

### EAren bisita

Eusko Alkartasunako Gipuzkoako hautagaiek, bailara bisitatu zuten astelehenean. Iñaxio Oliveri zerrenda-burua, Nekane Alzelai eta Isabel Gallastegi, zerrendako laugarrena eta bostgarrena izan ziren besteak beste. Bisitaren barruan ARKO ezagutu zuten (ARRASATE PRESS eta ATB) eta herri komunikabideen garrantzia azpimarratu zuten. EAren espektatiben arabera, Isabel Gallastegi arrasatearra legebiltzarkide izan daiteke baina Legebiltzarreko jarlekua lortu arren, Udaletxeko lanarekin jarraitzeko asmoa azaldu du Gallastegik.

### Istripua

Joan den ostiralean istripu txiki bat gertatu zen Nafarroa Etorbidean. Istripua gaueko hamabiak inguruan gertatu zen eta lagun batek zauri arinak izan zituen.

#### JAIOTZAK

- Iban Herrero Mouco. Irailaren 30ean.
- Xabier Belastegi Aspe. Urriaren 1ean.
- Andoni Otxoa Muñoz. 4ean.
- Olatz Legarda Izarzelaia. 2an.
- Ane Zuazubiskar Bolinaga. 3an.
- Ilenia Maillo Fernandez. 6an.
- Lierni Bollon Arruabarrena. 2an.

#### EZKONTZAK

- Juan Migel Mendieta Ugarte & M. Esperanza San Vicente Ormaetxea. Urriaren 1ean. Elizaz.
- Angel Mari Capellan Estrella & Eba Azkarate Lizarralde. Urriaren 8an. Elizaz.

#### HILDAKOAK

- Francisco Garai Goenaga. Urriaren 1ean. 67 urte.
- Jose Luis Ariño Berriozabalgoitia. 1ean. 68 urte.
- Consuelo Ozaeta Unamuno. 2an. 67 urte.
- M. Luisa Santamarina Urrutia. Urriaren 6an. 77 urte.
- Juan Carmona Luque. 10ean. 59 urte.

Laster irekitzekoa (urriaren 28an)

**Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta**
**Serrano Doktorea**

- GENITALETAKO MINBIZIAREN PREBENTZIOA
- ANTISORKUNTZA
- MENOPAUSIA
- BULAR-PATOLOGIA
- ZIRUGIA
- HAURDUNALDIA
- JAIO AURREKO DIAGNOSTIKOA
- ANTZUTZE KIRURGIKOA
- ANTZUTASUNA
- GINEKOLOGIA PSIKOSOMATIKOA

Prezio bereziak 25 urtez beherako, etxekoandre eta 3. adinakoentzat
*(Lagun-Aro Asegurua, igualatorio mediko-kirurgikoa,...)*
**SAN MARTIN OSASUNDEGIA**
**Ramon Mª Lili, 2 (Lasa jatetxea izandakoaren atzekaldean)**

# 2.004. urteko Arrasate: eman zure iritzia

Urriaren 17tik azaroaren 18ra bitartean jendaurrean ikusgai izango da Harresi Aretoan Arrasateko Udal Egitamu Orokorra; hala nahi duten herritar, talde edo erakunde guztiek asmoen berri ikusi eta euren iritzia eman ahal izango dute. Urriaren 17 eta 19an aurkezpen hitzaldiak egingo dira, egitasmoen berri jendeari emateko eta abenduaren 16ra arteko epea izango da gero, iradokizunak aukezteko. Iradokizun edo sugerentzia horiek edozeinek aurkez ditzake, idatziz udaletxera bidalita, zein erakusketan bertan jarriko diren buzoietan.

Harresi aretoko erakusketan, lehengo, oraingo eta etorkizuneko Arrasateren planoak, argazkiak, informazio panelak eta urbanizazio prozesua jasotzen duten argazkiak eta azalpenak egongo dira ikusgai. Datorren astelehen arratsaldean irekiko da, eta egunero egongo da zabalik, goizez 11etatik 1era eta arratsaldez 6etatik 8etara astegunetan, eta jaiegunetan berriz, 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.


Arrasateren hobekuntzan hitza dugu herritarrok.

Udal Egitamu Orokorraren bitartez etorkizuneko Arrasateren beharrak aztertu eta irtenbideak bilatu dira. Plenoaren onarpenarekin, 1996ko udazkenean bukatzea espero den prozesu bat hasi da, orduan emango dio eta Diputazioak behin betirako onespena. Bitarte horretan, jendaurreko beste erakustaldi bat ere egingo da eta plenoaren behinbehineko onespena ere emango da.

Plan Orokorraren ezaugarriaren gakoa, "hutsuneak bete bitartean hiriguneek lurralde gehiagorik ez bereganatzea" izango litzateke, Udaleko teknikarien esanetan. Orain arteko prozesua udaleko teknikariek eraman dute erabat, eta aurrerantzean hasten da eztabaida, azterketa eta aldaketa prozesua.

Lau arlo nagusi dira aipagai egitasmo honen inguruan, eta horiei buruzko informazioa izango da ikusgai erakusketan: egitura orokorra, ingurugiroa, etxebizitza eta iharduera ekonomikoari begira dauden asmoak.

Plangintza hau erabat Udaleko teknikariek idatzitakoa da, filosofia bezala bertako adituek eta hemengo errealitatea ezagutzen dutenek egina izatea nahi zen eta. Lanaren ardura Juan Antonio Urdangarin, Tomas Zubizarreta, Ane Zabala eta Kontxi Maletek izan dute, Udaleko beste teknikari batzuen aholkuarekin.

Plan guztia euskaraz egin eta gero gaztelerara itzuli da, teknikariek argi zeukaten eta ez zutela bi aldiz egingo. Belaxe itzulpen zerbitzua arduratu da itzulpena egiteaz. Arrasatekoa da euskaraz egiten den lehena. Bestelako berrikusten artean, planoak ordenagailuz diseinatu izana ere berrikuntza garrantzitsua dela esan behar.



Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxabea Tfnoa: 77 14 24

LARUNBATETAN

INGELESA

IKASTAROAK HASTEKOTAN DAUDE!
EMAN IZENA, ORAINDIK EGIN EZ BADUZU!

PREZIO BEREZIAK

ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU ASTEAN 3 ORDU

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

| | ORAIN DAGOENA | | | ERAKETA BERRIKOA | | | EGOERA BERRIA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| ETXEBIZI. | 8.207 | | | 1.167 | | | 9.374 | | |
| INDUSTRIA LURZORUA M² | 1.435.084 | | | | | | 1.405.876 | | |
| HEZKUN. LURZORUA M² | OHO 38.561 | ERTAIN 19.128 | BESTE 7.899 | OHO 16.073 | ERTAIN | BESTE | OHO 54.634 | ERTAIN 19.128 | BESTE 7.899 |
| KIROL LURZORUA | 58.455 | | | 35.445 | | | 93.900 | | |
| BERDEGUN. SIST. OROK. | 114.512 | | | 22.006 | | | 136.518 | | |
| APARKALE | PUB. 5.964 | PRIB. 5.170 | PARK. 171 | PUB. 3.151 | PRIB. 2.198 | PARK. 430 | PUB. 9.115 | PRIB. 7.278 | PARK. 601 |

# Aldaketa asko Arrasate hobearen bila

Egindako aurrikuspenen arabera 2.004. urterako Arrasate zertan hobetu eta aldatuko den eta nola geratuko den jasotzen du Udal Egitamuari buruzko erakusketak. Herritar guztiek ezagutu eta aportazioak egitea interesgarri ikusten da, eta egitasmoak zehatz metza ezagutzeko aukera izango du erakusketara hurbiltzen denak. Aurrerapen bezala, aldaketarik nagusienen berri jasotzeko aukera izango duzu hurrengo lerrootan:

— 25.078 bizilagun izango ditu Arrasatek egitamu hau betetzen denerako.

— Herritar guzti horientzat honela banatuko dira zerbitzuak eta lurzoruak erabilerareren arabera (ikus goiko kuadroa).

— Uribarri: Trefasa eta Amat dauden lekuak etxebizitza-gunea egingo da, Udalara bidean unifamiliarrak eta Erguin kalearen jarraipena luzatu, altuera bajuko etxeekin amaitu arte. Baserriak errespetatuz, industrialdearekiko separazioa izango den berdegunea egingo da.

Olandixo zeharkatuz tunela egingo da Uribarritik Takolora, kanpoko garraioa herri barrutik kentzeko asmoz.

— Gelma lantegia errekaz besteldera biltzea proposatzen da. Alderdi politikoek gune horretako izaera industrialari eustea proposatu dute ahobatez.

— Zerrajera ingurua industrial mistoa izango da.

— Zalduspe ingurua zerbitzuetarako izango da, Ospitalea eta abar.

— Agerre kalea: Santamaina kalearen gainekaldetik kale berri bat egingo da, etxebizitza bifamiliar eta unifamiliarrekin.

— Motorgabekoentzat sarea: Bidegorri antzekoa, oinezko eta txirrinduzaleentzat: Sare zabala izango da, trenbide zaharra leku batzutan aprobetxatuz, eta Gesalibar, Mugarritte eta Elorregi lotuko dituena.

— Industri-gune osoaren atzetik kaminoa egingo da, saihesbiderako irteera izango duena.

— Garagartza, Gesalibar, Udala eta Bedoñan etxebizitza gehiago egiteko aukera zehaztu egin da.

— Hidalgobaso aurrerago parke edo berdegune izan dadin jasota geratzen da.

— Erdikaldea oinezkoentzat: Sebero, Garibai eta Portaloia peatonal egingo dira, eta baita Maala, Olarte (Arbolapetatik Portaloira) eta Zarugalde kalea ere, beti zamaketa lanak kontutan izanda.

— Ingurugiroarekiko arreta berezia jarri da, errekari garrantzi berezia emanez.

— Zarata aldetik trafikoaren eragina aztertu da eta San Josepen pantaila akustikoa jarriko da.

— Uraren kalitateari begira ere neurri bereziak hartzea proposatzen da: araztegiak, euri-ur eta fekalen bereizketa eta abar.

Teknikariek egin duten azterketa eta proposamena aztertzen hasteko aukera dago orain eta eztabaida horretatik ateratzen dena izango da etorkizuneko Arrasate.



## Udal Plenoa

Ordenantza Fiskalen aldaketa ontzat eman zen, saneamenduari dagokion tasa berria dela eta %10eko igoera, Ur Partzuergoak obra hidraulikoen finantziaziorako kanona ezarri izana tarteko dela eta. Aldaketa hau aurrerago berkontsideratzeko aukera zabalik geratu da.

• Hirigintzako gaien artean, Ospitalea handitzearekin lotuta Arau Subsidiarioetan hainbat aldaketa egitea ere ontzat eman zen, HBren aurkako jarrerarekin izan bazen ere.

• Legargaingo etxebizitzen auziak ere aurrera egin zuen, Juan Karlos Garitano EAJko zinegotziak eta auzotar batzuk Egitamu Orokorraren aurrerapenarekin sugerentziak jaso ahal izateko atzerapena eskatu zuten arren.

• Toki-Argi jubilatuen etxeko tabernaren adjudikazioak ere eman zuen zeresanik astearteko plenoan. Marcelino Durán jaunari eman zitzaion adjudikazioa, baina beste eskatzaile batzuk kexu agertu ziren jarraitutako prozedura eta kontutan hartu beharrekoak neurtzeko orduan Udalak izan duen jokaerarekin.

• Aitor Orobengoa zinegotziak, bere alderdiarekiko izandako desadostasunak tarteko aurrerantzean Udalean independiente gisa jarraitzeko borondatea eman zuen aditzera.

# Alderdien iritzia

**Aitor Orobengoa (Zinegotzi independientea)**

Plan Orokorraren ezaugarri nagusia bere praktikotasuna eta gauzatzeko gogoa da; teoria alde batera utziaz epe labur nahiz ertainera egia bihurtu nahi dira bertan azaltzen zaizkigun iradokizunak. Proposamenok Arrasateko zenbait esparruren eraldatzea ekarriko dute. Aldaiko kanposantua parke bihurtzeak, Zerrajerako esparru industriala zatitzeak, zein Nafarroa Etorbidean, Etxe Txikien eta Gelma tartean dagoen lur eremuan iradokitutako erabilpenek, gure Herriaren izatea neurri handi batean erabat berritu eta aldatuko dute. Hutsuneei dagokienez, Kobateko eta San Josepeko harrobiei dagozkien erabilpenak, zuzenak baina mugatuak direla esango nuke. Kobateko kasuan zergatik bertan ez jarri kirol instalakuntzaren bat?

**Juan Joxe Saenz (HB)**

Orokorki begiratuta, plan orokorrari buruzko iritzi baikorra dugu, baina zalantza batzuk ditugunez, alegazioak aurkezteko asmoa dugu. Batetik Ertzaindegiaren kokapenari dagokionez, orain toki txarrean dagoela uste dugu. Ez dakigu non, baina beste toki batean egon beharko luke. Bestalde, Lanbide Eskola alboan CEI (Enpresa Berritzaileen Zentrua) jartzea aurrikusten da eta Zerrajerakoa aurrera badoa, gure ustez hobe da hor jartzea. Bukatzeko Gelma inguruko lursail industrialean etxebizitzak egitea aurrikusten da eta beharbada hobeto legoke hasieran zoru industrial bezala mantentzea.

Arrasatearrek plan orokorra ezagutzea oso garrantzitsua dela uste dugunez, herritarrei zuzendutako iharduunaldi batzuk egitea pentsatu du HBk. Era horretan, jendea informatu eta euren iritzia jasotzea lortu nahi dugu.

**Isabel Gallastegi (EA)**

Garrantzitsua da plan orokorraren aurkezpena egitea eta jendeak parte hartzea, kaltetuak izango direnek euren iritzia azalduko dute eta, eta era horretan. geuk ere planaren eragozpenak garbiago ikusiko ditugu. Horregatik, Harresi aretoan jarriko den erakusketara joatera gomendatuko genioke jendeari.

Oraingoz gainetik aztertu dugu baina prozesua luzea izango denez, bukaeran nahiko desberdina izango dela uste dugu. Hala ere, orokorki esan dezaket gure ustez hobe dela Gelmako zorua industriala izaten jarraitzea. Arrasatek pasealekuen beharra duenez , ondo ikusi dugu horrelako tokiak egiteko nahia.

**Paco Garcia (PSE-EE)**

Euskadiko beste toki batzuetan bezala, hemen ere natura gainditu behar izan da hirialdea egiteko. Hori dela eta, plan orokorrak kontutan izan beharko luke hirialdeak lurraldea gehiago ez hartzea. Era berean ondo banandu beharko lirateke egoitza-guneak eta lan iharduerako guneak. Auzoei dagokienez, berriz, horiek egokitzeko baliabideak eman beharko lirateke eta bestalde, orain txe dugu aukera erreken kutsadurari heltzeko ere.

Eraikuntzari dagokionez, gaurko beharrak zeintzuk diren kontutan hartu behar da. Babes ofizialeko etxebizitzak eraiki behar dira, gazteek ere etxebizitza edukitzeko aukera izan dezaten eta etxebizitza sozialak badira, askoz hobe. Alde zaharreko etxe zaharrak, berriz, merezi badu behintzat berritu egin beharko lirateke.

**Jose Mari Loiti (EAJ)**

Hirigintzaren ardura guk dugunez eta plan orokorraren aurrerapena moldatzen aintzindariak izan garenez, egindakoa positiboa izan dela esan dezakegu. Hiritar kopuruak bere hartan jarraituko duela kontutan hartuz, zenbat etxebizitza beharko diren eta eskolarako lursailaren beharrak zeintzuk izango diren aztertuz egin da plan orokorra. Baina egindakoa aurrerapena baino ez da, etorkizunean herria zelakoa izango den aurreratzen diguna baina gaiak duen garrantziagatik herritarrek parte hartzea ezibestekoa da. Euren iritziaren arabera plana moldatzeko aukera dute herritarrek ere.

Bestalde, Gelma inguruari dagokionez, gure ustez lursail industriala mantendu beharra dago Arrasaten. Horrek esfortzu handia eskatuko du baina beste aukera on batzuk agertzen ez badira behintzat, mantentzearen aldekoak gara.

## Gamei greban

Gamei enpresako Zuzendaritzak 20 langileri kontratua bukatu zaiela adierazi duela eta, Gameiko enpresa komiteak greba egitea erabaki du. Gamei, eskualde ospitalaren alboan dagoen enpresa da eta makina erramientaren sailean egiten du lan. Guztira 65 langile ditu eta 20 langileren kontratua bukatutzat jotzeak plantilaren %30a gutxitzea ekarriko luke. Irailean Eusko Jaurlaritzak aurkezturiko plan baten ondorioa da zuzendaritzaren erabakia.

Batzutan goizez egingo dira grebak eta beste batzutan arratsaldez. Hilaren 19ko greba, berriz, egun osokoa izango da. Grebak eginez, langileak kaleratzeko asmoa indargabe uztea lortu nahi dute eta hori ezin bada, kalteordain egokiak aurkez ditzala eskatuko diote zuzendaritzari.

• Txitxinpe •
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia, fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

TTUKUN
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreprodukzioa
Offseta
Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62

UDALAITZ
TABERNA
Erdiko kale, 3 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 61

ZUBIZARRETA TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

**Maritxu Kajoi egunean primerako giroa egon zen. Arratsalde aldean dotore-dotore jantzita kaleratu zen jendea. Herria jendez gainezka zegoen eta gauean tabernetara sartzeko merituak egin behar ziren. Jende asko baina Maritxutan ohizko bihurtu denez, jende artean ere guztiok gustora.**





*Ohol Zahar batzu*
*jarri zituzten*
*nire aurrean parez pare,*
*urte osoan hala egon naiz*
*jenderik ikusi gabe,*
*txikiteroei esan nahi diet*
*hartu dezaten adore,*
*zokoren baten ni gordetzeko*
*àsmoren batzu badaude,*
*baina hementxe segi gura dot*
*hurrengo urtetan ere.*
***(Eskapularioko bertsoa)***

Maritxu Kajoi egunean Oriako txarangak alaitu zituen Arrasateko kaleak. Txaranga horretan Arrasateko pertsonaia berezi batek jo zuen klarinetea, **Paco de la Cruz, "Franzua de la Crua"** gaitzizenez ezaguna. Paco duela 65 urte jaio zen Arrasaten, eta 1965ean, Parisa aldegin zuen. Juanito Arzamendik erakutsi zion klarinetea jotzen.

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA
ZARRAOA
EL ARCA DE NOE
• Estetika kabinetea
• Larruzko artikuluak
• Bitxitegia
• Jostailuak
Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

EsLu
ileapaindegia
Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



**Felipe Bengoa**k, Atxabaltan bizi den aramaioarrak 13 kiloko perretxikoa aurkitu zuen domekan. Perretxikutan joan zen Etxangoko Atxetara eta hantxe aurkitu zuen "ale" eder eta galanta. Lastima, jateko balio ez izatea!

**Maritxu Kajoi egunean, broma galanta sakatu ziguten AED eta Txatxilipurdiko langileek. Lotoan sei zenbaki asmatu ondoren, 2.000 milioiko saria tokatu zitzaiela esan ziguten. Goiz osoa egia zelakoan ibili eta gero, arratsaldean broma hutsa zela jakin genuen. Broma hutsa izan arren, Arrasaten eta inguruko herrietan ahoz-aho ibili zen notizia egun osoan zehar.**



## IZEN PROPIOAK

● Hauteskunde sindikalen ostean, honela osatuko da Udaletxeko Enpresa-Komitea:LABetik **Jon Alustiza**, **Deunoro Otero**, **Iban Arana**, **Jose Manzano** eta **Joserra Agirreurreta**. ELAtik **Jon Ander Juldain**, **Simon Martinez**, **Eusebio Viamonte** eta **Xabier Arrizabalaga**. ESK-CUISetik **Jose Ramon Landa**. Aukeratutako guztien artean bi liberatu egongo dira lan horretarako; **Jon Alustiza** eta **Simon Martinez**.

● **Leire Aperribai** 20 urteko arrasatearra, Suizako Friburgo herrira joan da psikologiako 3. kurtsoa egitera. Leire Deustun ari da psikologia ikasten eta Erasmus programari esker, 3. kurtsoa Suizan egingo du.

Zuri Garbiketak

• Garbitasun orokorrak eta mantenimentua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
• Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

San Juan, 14 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

OPARITZEKO GAUZAK
Mexiko, Guatemala, India eta Txinatik ekarriak
KIF
Ferrerias, 28-A. Tfnoa: 79 02 79 ARRASATE

El Zaguan de los Detalles

VITORIA - GASTEIZ

ZURETZAT SORTUTAKO GAURREGUNGO ESTILOA

Iraileti
urtarrilara
ATBn
ikusiko
gaituzu

- Altzariak
- Dekorazioa
- Baxerak

- Kristaleria
- Opari-gaiak
- Arte Garaikidea

EZ DUZU SINISTUKO

- Zure lehen etxea jartzea erabaki baduzu, **ezkontza-zerrenda** antolatuko dizugu, diru-baldintza paregabetan.
- Zure etxea erosoago egin nahi baduzu, **bisita gaitzazu**. Ideia asko emango dizugu.

**ORDAINKETA :**
**18 hilabetera arte interes barik**

El Zaguan de los Detalles

**Correria kalea, 36-38-40 (Virgen Blanca Plazatik 100 metrotara) Vitoria-Gasteiz - Tfnoak: (945) 28 86 09/28 78 82**

# ZALDIBARKO Futbito 94-95 Txapelketa



## Hasi da gerra!

**Larunbatean lehenengo ostikoak eman zizkioten baloiari Zaldibarren eta Iturripen. Aurten ere, Maritxu Kajoi biharamunak eman dio hasiera Zaldibarko txapelketari. Goizeko 8.50etan gaupaseroen zitaleku bihurtu zen Zaldibar. Jendea traje eta guzti, Zaldibarrera inguratu eta primerako giroa bizi izan genuen. Partidua trajeaz jokatu zuenik ere egon zen gainera. Kontuak kontu, makina bat xelebrekeria ikus genuen txapelketako lehen egunean eta egia esateko, egunak ere horretara laguntzen du. Aurten Bukanak eta Astoen villa taldeak arduratu dira txapelketa abian jartzeaz. 8.50etan elkarren kontra jokatu zuten bi taldeek eta gezurra badirudi ere, 12 gol sartzeko kapaz izan ziren: Bukanak 8 Astoen Villa 4. Jokalari asko gaupasa eginda kantxaratu ziren arren, korrikaldi batzuk egin ostean, berrituta geratu ziren.**


Felipe Arrizabalaga
AROZTEGIA

• SUKALDE-ALTZARIAK
• SARRERAKO ETA BARRURAKO ATEAK
• ARMAIRU ENPOTRATUAK ATE KORRIGARRIEKIN

Legarre pabiloia, ARRASATE Tfnoa: 79 22 76

## A taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| GANBELAS | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 0 | **2** |
| FOSFOROS | 1 | 1 | 0 | 0 | 7 | 0 | **2** |
| LENIZ GARAGAR. | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 0 | **2** |
| HIREI | 1 | 1 | 0 | 0 | 18 | 1 | **2** |
| SALENKO | 1 | 1 | 0 | 0 | 6 | 1 | **2** |
| BUKANAK | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 4 | **2** |
| ARRASATE KIR. | 1 | 1 | 0 | 0 | 7 | 5 | **2** |
| LOS DALTON | 1 | 1 | 0 | 0 | 6 | 5 | **2** |
| ADELAI-HAIZEA | 1 | 0 | 1 | 0 | 4 | 4 | **1** |
| ZOTZ | 1 | 0 | 1 | 0 | 4 | 4 | **1** |
| STRAUSS | 1 | 0 | 0 | 1 | 5 | 6 | **0** |
| FRAGUEL GOL | 1 | 0 | 0 | 1 | 5 | 7 | **0** |
| ASTOEN VILLA | 1 | 0 | 0 | 1 | 4 | 8 | **0** |
| KRISKIBALDA | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 6 | **0** |
| EZTANDA EGIN | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 18 | **0** |
| INSERT COIN | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 4 | **0** |
| BAYER LENITZ | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 7 | **0** |
| ILUNA TABERNA | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 8 | **0** |
| ATERPE | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** |
| ZULOAK | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | **0** |

## B taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| TRIKITI | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 0 | **2** |
| TOVARITX | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 0 | **2** |
| TXEYENEX | 1 | 1 | 0 | 0 | 16 | 2 | **2** |
| LOS DIMY | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 1 | **2** |
| PETROLEROS | 1 | 1 | 0 | 0 | 7 | 2 | **2** |
| PEPELUS | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 3 | **2** |
| BERANGO | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 2 | **2** |
| UGLYS | 1 | 0 | 1 | 0 | 4 | 4 | **1** |
| UGARTE | 1 | 0 | 1 | 0 | 3 | 3 | **1** |
| ARRAS,ZOO | 1 | 0 | 1 | 0 | 2 | 2 | **1** |
| MONTERREY | 1 | 0 | 1 | 0 | 2 | 2 | **1** |
| BUENO TAB. | 1 | 0 | 1 | 0 | 3 | 3 | **1** |
| DANOK LAG | 1 | 0 | 1 | 0 | 4 | 4 | **1** |
| PUB PEOPLE | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 | **0** |
| ORKATZ | 1 | 0 | 0 | 1 | 3 | 5 | **0** |
| ANBOTOSTE | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 7 | **0** |
| NO COMENT | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 8 | **0** |
| LA BANDA | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 16 | **0** |
| EZKINAKO | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 3 | **0** |
| TOTEM | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 5 | **0** |

## C taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| IRATI STS | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 1 | **2** |
| EQUS BTR | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 1 | **2** |
| EXCAV. LETE | 1 | 1 | 0 | 0 | 7 | 1 | **2** |
| AUTOS MURU | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 1 | **2** |
| KOKA JUN | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 1 | **2** |
| LEYA | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 2 | **2** |
| ORLANDO | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 2 | **2** |
| BODISCA | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 2 | **2** |
| NABARROS | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 2 | **2** |
| KE OXTIAS | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 4 | **2** |
| FOTO IMAGEN | 1 | 0 | 0 | 1 | 4 | 5 | **0** |
| LORA POTROAK | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 3 | **0** |
| DKB | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 5 | **0** |
| FRANZISKANER | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 5 | **0** |
| PERRAHOTSA | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 5 | **0** |
| BANEUKO | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 3 | **0** |
| ARTZANKOS | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 4 | **0** |
| POTROSORRI | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 7 | **0** |
| TXOKO TAB | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 8 | **0** |
| JOTAKABAU | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 8 | **0** |

## D taldea

| | PARTIDUAK | | | | GOLAK | | PUNT. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Berd. | Gald. | Alde | Aurk. | Guzt. |
| BORROCK´N ROLL | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 0 | **2** |
| SUKAR | 1 | 1 | 0 | 0 | 7 | 1 | **2** |
| ARGI IBILI | 1 | 1 | 0 | 0 | 8 | 2 | **2** |
| SOKOAKOAK | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 1 | **2** |
| ANORTHOSIS | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 1 | **2** |
| BUTANGAK | 1 | 1 | 0 | 0 | 6 | 2 | **2** |
| OJO AVISORE | 1 | 1 | 0 | 0 | 3 | 1 | **2** |
| MIKELOS | 1 | 1 | 0 | 0 | 6 | 3 | **2** |
| AC SURCOS | 1 | 1 | 0 | 0 | 4 | 2 | **2** |
| LOS HEREDIA | 1 | 1 | 0 | 0 | 5 | 3 | **2** |
| D.A .IRIZTU | 1 | 0 | 0 | 1 | 3 | 5 | **0** |
| KAKAJAURI | 1 | 0 | 0 | 0 | 2 | 4 | **0** |
| LAUTHERBRUNNEN | 1 | 0 | 0 | 1 | 3 | 6 | **0** |
| ALTXA PORRU | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 3 | **0** |
| TEODORITO | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 6 | **0** |
| MOTZ | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 4 | **0** |
| ELISABETH | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 4 | **0** |
| RESAKAS | 1 | 0 | 0 | 1 | 2 | 8 | **0** |
| TRONKOTEAK | 1 | 0 | 0 | 1 | 1 | 7 | **0** |
| BZ SIZTEMAS | 1 | 0 | 0 | 1 | 0 | 4 | **0** |


AGRICENTRO
**OTXOA, S.L.**

- **NEKAZARITZA:** haziak, ongarriak, produktu agrokimikoak, e.a…
- **ABELAZKUNTZA:** pentsuak, botikak, abereentzako materiala, baserrirako tresneria, e.a…
- **LORAZAINTZAKO PRODUKTUAK:** ureztatzea, keramika, ongariak, e.a…
- **ETXEKO ANIMALIENTZAKO JANARIAK:** (txakur, katu, , txori eta arrainentzakoak)

**Musakolako Industrialdea, z/g *: 79 17 79 / 79 80 70**
**ARRASATE**




**Kalitate gorena leihoetan**

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA:

**Kataide Poligonoa, 4. Pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE**



**Datorren asteburuan 2. jardunaldia jokatuko da. Neurketa batzuk aipatzekotan, Zuloak eta Arrasate Kirolaken arteko partidua interesgarria izan daiteke. Los Heredia eta Borrock´n Roll artean ere lehia bizia egongo da. AC Surcos eta Mikelosen artekoa ere ikusgarria izan daiteke.**

## LABURRAK

◆ **Lehenengo zigorra.** Orkatz taldeak txapelketako lehen partidua epaitu behar zuen, baina Orkatzekoak ez ziren Zaldibarren agertu goizeko 9etan. Beraz, zigorra: 2 puntu gutxiago eta abisua, hurrengoan kalera. Antolatzaileekin ezin da txantxetan ibili!

◆ **Argiekin zer?** Aterpe eta Zuloakek arratsaleko 7etan neurtu behar zituzten indarrak zapatuan. Baina Zaldibarren argiak piztu behar zituena, itxura denez lokartu egin zen eta bertan behera geratu zen neurketa. Zapatuko partidua asteazkenean 12an jokatuko da Zalbidarren baina goizeko 10etan, bada ez bada!

◆ **Porteriak listo.** Denboralditxo bat itxoin eta gero, azkenean Iturripeko porteriak konpondu egin dituzte. Orain, baloia sarera sartzen denean, ondo ikusiko dugu non dagoen.Antolatzaileak esker beroenak eman nahi dizkie Aukea eta Udalekoei konponketagatik.

## EMAITZAK

**A taldea**

Bukana 8 - Astoen villa 4
Salenko y Konpañia 6 - Kriskibalda 1
Fosforos 7 - Bayer Lenitz 0
Los Dalton 6 - strauss 5
Ganbelas 8 -Iluna Taberna 0
Insert Coin 0 - Leniz garagardotegia 4
Adelaida Haizea 4 - Zotz 4
Eztanda egin arte 1 - Hirei 18
Arrasate kirolak 7 - Fraguel Gol5

**B taldea**

Orkatz 3 - Pepelus 5
Anbotoste 2 - Petroleros 7
No Comment 1 - Los Dimy 8
Arraste zoo 2 - Monterrey 2
Tovarixtx 3 - Ezkiñako Hontzak 0
Danok Lagun 4 - Uglys Txinato 4
La Banda 2 - Txeyenex 16
Nuevo Taberna 3 - Suministros Ugarte 3
TrikitiN5 - Totem 0
Berago Sukaldeak 3 - Pub People 2

**C Taldea**

Lorategi Potroak 2 - Nabarros 3
Bodisca 5 - D.K.B 2
Leya 5 - Perrahotsa 2
Artzankos Udalaitz 1 - Autos Muru 4
excav. Lete 1 - Potrosorri 1
Txoko Taberna 1 - Equs 8
Jotakabau 1 - Irati S.T.S 8
Frantziskaner 2 - Orlando piratas 5
Koka Juniors 3 - Baneuko 1
Ke Oxtias! 5 - Foto Imagen 4

**D Taldea**

Elisabeth 1 - Sokoakoak 4
Los Heredia 5 - Diego An. Irztu 3
B.Z Sisatemas 0 - Borrock´N Roll 4
Teodolito 2 - Butangak6
Ojo Avisore 3 - Altza Porru 1
Anorthosis 4 - Motz 1
A.C Surcos 4 - Kakajauri 2
Lautherbrunnen 3 - Mikelos 6
Argi Ibili 8 - Resakas 2
Tronkoteak1 - Sukar 7

**URONDO**
**elektrizitatea**

* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak

**Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa**
**Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76**
**ARRASATE**

## ASTEBURU HONETAN

### Larunbata 15

**Zaldibar**

8.50 Los Dalton - Iluna Taberna
10.00 Foto imagen - Koka Juniors
11.00 Zuloak - Arrasate kirolak
12.00 Sukar - Argi ibili
13.00 Baneuko - Frantziskaner
14.00 Escav, Lete - Equs BTR
15.00 BZ sistemas - Butangak
16.00 Leya - Autos muru
17.00 Resakas - Lautherbrunnen
18.00 Artzankos Udalaitz - Potrosorri
19.00 Anorthosisi - Kakajauri

**Iturripe A**

10.00 Bukanak - Kriskibalda
11.00 La Banda - Suminis. Ugarte
12.00 Fosforos - Strauss
13.00 Txoko Taberna - Irati STS
15.00 Salenko y Konpañia - Bayer de Lenitz
16.00 Danok Lagun - Txeyenex
17.00 Tovarixt - Uglys txinato
18.00 Astoen Villa - Aterpe

**Iturripe B**

10.00 Insert coin - zotz
11.00 Arrasate zoo - Ezkiñako Hontzak
12.00 Loretegi Potroak - DKB
13.00 Anbotoste - Los Dimy
15.00 Bodisca - Perrahotsa
16.00 Totem - Nuevo taberna
17.00 Elisabeth - D.A Iriztu
18.00 Jotakabau - Orlando piratas

### Igandea 16

**Zaldibar**

8.50 Pub People - trikiti
10.00 Orkatz - Petroleros
11.00 Ganbelas - Cerveceria Leniz
12.00 Nabarros - Ke oxtias
13.00 Ojo Avisore - Motz

**Iturripe A**

10.00 Pepelus - Berango sukaldeak
11.00 Adelaida haizea - Hirei
12.00 AC Surcos - Mikelos
13.00 Sokoakoak - Tronkoteak

**Iturripe B**

10.00 Franguel Gol - Eztanda egin arte
11.00 No Comment - Monterrey Taberna
12.00 Teodolito - Altza Porru
13.00 Los Heredia - Borrock´n Roll



# Lehen jardunaldia jokatu da dagoeneko

**Auurten**go Zaldibar txapelketan 80 talde daude 4 multzotan banatuta. A taldean 88 gol lortu dira guztira, eta jardunaldiko talde goleatzaileena A multzoan agertzen zaigu. Hirei taldeak 18-1 irabazi zion "Eztanda egin arte" taldeari. Eztandakoek ziurrenik ederto pasatuko zuten Maritxu gaua, baina gero.... ezin. Bestalde, Aterpe eta Zuloak taldeen arteko neurketa bertan behera geratu zen, kantxako argiekin arazoak izan zituztelako. B taldean gol gutxiago sartu bada ere, bataz bestekoa oso ona izan da, guztira 75 gol. Goleada ere egon da: La Banda 2 Txeyenex 16. Orkatz taldea 2 puntu gutxiagorekin geratu da epaitu behar zuen neurketara agertu ez zelako. C taldean nahiko parekatuta daude kontuak: zapatu eta domekako partiduak kontutan izanda, 70 gol sartu dira. Taldeen gainean oraindik gauza asko esaterik ez dagoen arren, hor dugu Irati STS aurreneko postuan eta gertutik jarraitu beharko diogu, iaz ere txapelketa bikaina egin zuen eta. Azken multzoan taldeen arteko lehia oso bizia da. Golei dagokienez, multzo honetan sartu da golik gutxien jardunaldi honetan, 67 gol besterik ez. Esandakoak esan, lehen jardunaldia besterik ez da jokatu, hemendik aurrera talde guztiek makina bat iserdi bota beharko dute.


Baster-alde



Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

*Galartza auzoa* *ARETXABALETA*

*Tfnoa: (943) 79 24 58*

Elektroinjekzio Zerbitzua
LUCAS

ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

PEUGEOT
Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

# EArekin GOBERNU ABERTZALEA



e u s k o a l k a r t a s u n a

lenon zerbitzurako izango den Gobernua behar dugu, euskal ikuspegi abertzale batetik benetazko zuzendaritza politikoa urutuko duena, Euskadiren eraikuntza nazionalean aurrera eginez, gure herritarren arazo larrienei irtenbidea eskaintzeko.

**lorretarako Eusko Alkartasunak hauxe proposatzen du:**

- Autogobernuan tinko aurrera egitea, egitura politikoa eraberrituz, gure gizartearen arazoei geure irtenbideak eman al izateko.
- Gizarte eta politika indarren arteko akordioa bultzatzea, indarkeriari amaiera emanez Euskal Herrian adiskidetza erreskuratzea lortzeko.
- Ekonomiaren berpizkundea eta enpleguaren sorkuntza eragingo duen gizarte mailako adostasun garrantzitsua lortzea.
- Gizartearen beharrei erantzuteko iharduerak garatzea, aukera izan dezagun:
  - Etxebizitza arloko iharduera orokor bat burutzeko (eraikuntza, akura, gazteentzako aukerak,...).
  - Osasun zerbitzu oso bat eratzeko, desentralizatua, kalitatezkoa eta berehalako arreta eskainiko duena.
  - Hirugarren adinekoentzako nahikoa laguntza-zerbitzu osatzeko.
  - Arreta handiagoa behar duten taldeentzako (drogamenpekotasuna, alkoholismoa,...) iharduera bereziak antolatzeko.
  - Euskararen aldeko ekintza eraginkorrak sustatzeko.
  - Gure gizarteak dituen prestakuntza beharrei erantzungo dien Hezkuntza Sistema eratzeko, ikerketari garrantzi berezia eskainiz.

Hori guztiagatik, Eusko Alkartasunak Gobernu abertzalea eta zuzena osatzeko proposamena egiten du, diru xahuketaren aurka zuhurtasunez jokatzeko eta burokrazia antzuaren aurka eginkortasunez aritzeko.



zkerretik eskuinera eta goitik behera:
ugenio Iriondo, María Carrera, Eneko Oregi, Isabel Gallastegi, Txema Pedruzo, Nekane Alzelai, Izaskun Urrutia, Iñaki Galdós.
abin Intxaurraga, Inaxio Oliveri, Patxi Ormazabal, Jasone Irarragorri, Carlos Garaikoetxea, Igone Martínez de Luna, Rafael Larreina.

Gobernu Zuzen eta Eginkorra.

Aitziber Aranburuzabala - Unai Loidi

**Azkenengo urte hauetan hizkuntza akademia kopurua handitu egin da Arrasaten. Arduradunen iritzia eta atzerriko hizkuntzaren bat ikasten ari diren ikasleen inpresioak jaso nahi izan ditugu ondorengo lerrootan. Benetan beharrezkoa den edo ta moda besterik ez ote den, zein hizkuntza diren ikasienak, zein jende moetak jotzen duen hizkuntz-akademiara... eta horrelako kontuak.**

Ondorengo taulan ikusten den moduan ia bi mila dira Arrasaten, akademietan bakarrik, atzerriko hizkuntzaren bat ikasten dihardutenak. Ume, gazte eta nagusi, bakoitza bere helburuarekin, baina denek jotzen dute akademietara.

### TXIKI ETA HANDI

Akademietakoen esanetan, gurasoek bidalita etortzen dira haurrak, gehienbat eskolaren lagungarri bezala. Ingelesa aukeratzen dute, alemanean ari diren zenbait ume ere badagoen arren. Tituluren bat eskuratzeko prestatzen ari direnak gazteak izaten dira gehienbat; karrerarako edo etorkizunean behar izan dezaketelako ari dira atzerriko hizkuntzetan murgilduta. Ingelesaz gain frantsesa edo alemana ere aukeratzen dute gazteok. Nagusiagoek, aldiz, lanerako behar dutelako edo beste hizkuntzaren bat jakiteko interesa dutelako jotzen dute akademietara. Azken hauek, gaztetan ez dute horrenbeste aukera izan, eta orain ari dira atzerriko hizkuntzaren bat ikasten.

Argi dago, atzerriko hizkuntzen artean ingelesa dela nagusi (taulako datuak ikusi

| HIZKUNTZAK | | IKASLE KOPURUA |
|---|---|---|
| Ingelesa | | 1765 |
| Frantsesa | | 49 |
| Alemana | | 128 |
| GUZTIRA | 1942 | ARRASATEARRAK: %75 |
| | | KANPOKOAK: %25 |

Datu hauek, Arrasateko 4 akademietatik hartutakoak dira.

## Atzerriko hizkuntzak ikastea:

# Mundu guztia ahoan



**Eamon Fagan (Parlance)**

Akademia batera doan ikasleak duen abantailarik handienetarikoa, bertan aurki dezakeen jatorrizko irakaslea da. Jatorrizko irakasleak ahozkera bikaina du, eta entzumena izaten da hizkuntza baten ikasketarako oinarria. Hizkuntzak bi aspektu ditu: ikastea eta barneratzea. Barneratzea jatorrizkoekin izandako harremanetatik dator. Horregatik, jatorrizko irakasle tituloduna luxu txiki bat dela uste dut.

Ingelesean, gero eta hobeto prestatuta dago jendea. Maila on bat lortutakoan beste hizkuntza bat ikasten hasten da. Nire ustetan, frantsesa alemana baino egokiagoa litzateke, hurbiltasun geografikoagatik batez ere. Atzerriko bigarren hizkuntza ikasterakoan, lehenik bat ondo menperatu behar dela uste dut nik. Orduan bigarrenarekin has daiteke, bestela biak nahasten dira, batez ere pertsona helduek.



**Adelaida Maidagan ( AHIZKE-CIM)**

Nazioarte mailarekin alderatuta, hizkuntzekiko gure ezagutza oraindik baxua izan arren, Euskal Herri mailan edota baita Estatuan ere, Arrasate oso leku pribilejiatua da. Arrasaten sensibilizazio handia dago hizkuntzak ikasteko. Oso ingeles maila ona dago bailara osoa orokorrean hartuta. Ondorioz, atzerriko bigarren hizkuntza ikasteko irrika sortu da jadanik.

Lan munduan atzerriko hizkuntzak ezinbestekoak dira. Enpresetako hizkuntza oso berezia izaten da. Negoziotarako, telefonoz hitzegiteko edota bisitak jasotzeko prestatuta dagoen jendea behar dute. Horretarako, egoera horiek klaseetara eramaten dituzten irakasle berezituak behar dira.



**Joe McNeill (Idiomaster)**

Hizkuntza batean maila ona lortzeko, ez da beharrezkoa jatorrizko irakaslea edukitzea. Irakasleak, ezer baino lehen, ona izan behar du. Bertako iraskasle bat askotan jatorrizkoa baino hobea izan daiteke. Ez da nahikoa hizkuntza bat jakitea gero irakasteko ahalmenik ez badauka. Egia da, maila ertain batetik aurrera jatorrizko irakaslea entzumen eta ahozkeran oso lagungarria izan daitekeena.

Arrasaten horrenbeste akademia egotearen zergatia, hezkuntza sisteman hizkuntzen irakaskuntzak duen maila baxua izan daiteke. Hizkuntzen eskaria handia da. Horregatik, eskolatik kanpoko laguntza behar izaten dute haurrek.



**Rene Waterhouse ( La Puerta al Inglés)**

Hizkuntza bat ikasten hasteko adinik onena 8-9 urtekoa da, 6 urterekin oraindik ez dakite ia idazten eta. Txikitatik akademian hasi den umeak geroago nabari izaten du.

Ingelesa beste hizkuntzak baino gehiago eskatzen da oraindik, baina poliki-poliki alemana gora doa. Orain dela urte batzuk kultura moduan ingeles edo frantses pizkatxo bat eduki eta kitto, nahikoa zen. Gaurko egunean ordea kanpora joateko, lanen bat aurkitzeko eta edozer gauzatarako beharrezkoa da. Atzerritarren aldean, hemen jendea ez dago hizkuntza aldetik berdin prestatuta. Nibela piska bat gora doa, Laneko munduak eskatzen duelako eta gure kultura ere gora doalako.

besterik ez). Azken urteotan alemana indarra hartzen ari da, bi Alemanien batasunaren eta honen nagusitasun ekonomikoaren ondorioz. Alemana ikasteari ekin diotenak aurrez atzerriko beste hizkuntzaren batean, bereziki ingelesean, maila ona dutenak dira. Gutxi dira atzerriko lehen hizkuntza moduan alemana aukeratzen dutenak.

Kurtsoa hasi berritan, buruhauste haundiak izaten dira akademietan, taldeak osatzeko orduan. Ikaslearen maila eta adina dira lan horretarako irizpide nagusienak, baina bakoitzaren ordutegia eta helburua ere kontutan hartu beharrekoak izaten dira. Honela, akademietan mailen arabera osatzen dira taldeak, adina bereziki haurren taldeetan errespetatzen delarik. Ordutegia berriz, haseran akademiek ipintzen dute, baina beti izaten da aldatu beharra, batez ere lanean ari den jendearentzat. Haur eta gazteak izaten dira akademiak ezarritako ordutegira ondoen moldatzen direnak. Lanean ari direnek ordutegi aldetik flexibilitatea eskatzen diote akademiari, bere ordutegira moldatzea (zenbaitetan zapatu goizetan ere ematen da).

## PREZIOAK, EZAGUTU BEHARREKOAK

Interesgarria da prezioei buruz ere zerbait esatea. Jakina, prezioak desberdinak dira akademia, hizkuntza eta mailaren arabera. Matrikulatzean ordainketa bat eskatzen dute akademia guztiek. Kopurua asko alda daiteke akademiaren arabera: 6.000 pezetatik 11.500ra bitartean. Ondorengo ordainketak, hilero edo hiru hilabetero egin beharrekoak, mailaren arabera aldatu egiten dira; Oinarrizko ingelesa, adibidez, astean 3 ordu emanda, 3.000 pezetatik 5.000ra bitarte kosta daiteke. Ingeleseko Cambridge titulurako 6.000tik 8.000ra hilean (akademien araberako prezioak). Frantsesak inglesaren antzeko prezioa dauka, baina alemanak, zenbait akademiatan prezio berezia du.

Akademia batera jotzeko orduan, zein hizkuntza eskaintzen duen ikusi behar da, eskaintza ez da eta berbera. Arrasaten, ingelesa guztiek eskaintzen dute, baina ez alemana eta frantsesa. Dena den, gure herrian bada atzerriko hizkuntzak non ikasi!

**Jakina, prezioak desberdinak dira akademia, hizkuntza eta mailaren arabera.**

## Zein hizkuntza ari zara ikasten? Zergatik?



**Imanol Orueta**
**23 urte**
Enpresa zientziak ikasi ditut, eta lana aurkitzeko beharrezko ditut hizkuntzak. Masterren bat edo egiteko ondo etorriko dira. Ingelesean lehendik badut nahiko maila ona. Alemanean oraintxe hasi naiz. Oñatitik etorri behar izan dut, han ez dago eta alemaneko talderik.



**Igor Arboniaz**
**20 urte.**
Ni ingelesa eta frantsesa ikasten ari naiz. Ingelesean maila ertain bat badut lehendik. Frantsesean oraintxe hasi naiz. Frantzia gertuago dugunez, alemana baino nahiago izan dut frantsesa. Jendearekin komunikatzeko adina ikastea da nire helburua.



**Nerea Balanzategi**
**11 urte.**
Amak bidaltzen nau akademiara, ingelesa ikastera. Ikastolan ematen dugu, baina gehiago jakiteko nabil eskolatik kanpo ere ingelesa ikasten. Klaseak ez dira aspergarriak izaten. Jolasak, batzuetan kantak... egiten ditugu.



**Eugenio Otxoa**
**43 urte.**
Ingelesa ikasten ari naiz, orain dela 3 urtetik hona. Nik lanerako beharrezko dut, kanpoko bisitak hartzeko eta. Niretzat, hizkuntza bat ikasterakoan, klase orduetatik kanpora denbora topatzea da zailena. Nire helburua ez da ingeles perfektua lortzea, nolabait ulertzeko eta hitzegiteko gai izatea baizik.



**Edurne Iñarra**
**25 urte**
Alemana ikasten ari naiz, gustoko dudalako batez ere. Alemana ez da hizkuntza zaila, beste edozein hizkuntza bezalakoa da. Irakasleak aurten azterketara aurkez gaitezen nahi du, baina ez dut uste prest egongo naizenik. Nik lanerako ez dut beharrezko alemana, baina garrantzitsua da hizkuntzak jakitea.



**Nati Etxabe**
**40 urte**
Lehenago ibilia naiz ingelesa ikasten, baina utzi egin nuen, eta orain berriro hasi naiz. Lanean, makinen erabilerarako gidaliburuak eta egiten ditugu, eta ingelesa inportante ikusten dut horretarako. Ahal izango banu atzerrira joango nintzateke ikastera. Jatorrizko irakasleak ere garrantzitsuak dira.

# Arrasate eskubaloi taldeko jokalariak

**Imanol Alvarez**
27 urte
Entrenatzailea
ermuarra



**Jose Antonio Moreno**
20 urte
1,74 metro
atezaina
arrasatearra



**Ibon Azkue**
22 urte
1,65 metro
atezaina
zumaiarra



**Angel Moraleja**
27 urte
1,70 metro
punta
arrasatearra



**Igor Ansoategi**
21 urte
1,77 metro
punta
arrasatearra



**Igor Zabalo**
18 urte
1,70 metro
punta
arrasatearra



**Mikel Aja**
27 urte
1,91 metro
pibota
ermuarra



**Fertxu Rodriguez**
20 urte
1,85 metro
pibota
arrasatearra



**Mikel Loiti**
22 urte
1,71 metro
pibota
arrasatearra



**Josu Arabaolaza**
20 urte
1,82 metro
erdikoa
arrasatearra



**Jokin Esnal**
21 urte
1,86 metro
erdikoa
zumaiarra



**Eneko Galdos**
19 urte
1,87 metro
erdikoa
Arrasatearra



**Asier Kortabarria**
22 urte
1,88 metro
albokoa
arrasatearra



**Ibon Enbil**
19 urtre
1,93 metro
albokoa
zumaiarra



**Jon Iraola**
22 urte
1,85 metro
albokoa
arrasatearra



**Ricardo Santacristina**
24 urte
1,82 metro
albooa
arrasatearra



**Roberto Madinabeitia**
26 urte
Delagatua
arrasatearra




Monte
taberna
Maalako arrabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

CRISTINA GARCIANDIA MUGICA
Dermatologia • Benereologia
Medikuntza • Kirurgia
ASISTENCIA SEGUROS LAGUN-ARO
SAN MARTIN OSASUNDEGIA
Ramon Mª Lili , 2 Gral. eskuma BERGARA ✆: 76 59 39

beatriz
oinetakoak eta
poltsak
Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

# Jesus Mari Herrero:
# Eskubaloia ere lehenengo mailan

**Arrasateko eskubaloi taldeak Estatuko lehen mailan jokatuko du aurtengo denboraldian. Uztailaren 9an jakin zuten euren eskakizuna onartua izan zela eta ordutik ona lan dexente egin behar izan dute babesleak aurkitzeko eta talde sendoa osatzeko. Jose Mari Herrerok azaldu digu taldearen gaur egungo egoera.**



Jesus Mari Herrero lehen territorialean jokatzen duen taldearen entrenatzailea da.

**- Nola izan zen igoera?**

- Iruñeako San Antonio Ariston taldeak eman digu plaza. Ohorezko mailara igotzeko aukera izan zuten eurek eta lehen mailan tokia zegoenez, gurekin jarri ziren harremanetan. Baietza eman genuen eta hortxe gaude, ilusioz beteta.

**- Lehen mailara igo duzue, baina horrek gastu gehiago ekarriko du?**

- Bai, gastu asko izango dugu, joan-etorriak ere luzeagoak dira eta. Baina, uztailaren 9an lehen mailako tokia gurea zela esan zigutenean, dirua lortzeko lanean hasi ginen eta zenbait diruiturri zehaztuta daukagu dagoeneko.

**- Zeintzuk dira laguntzaileak?**

- Babesle bat daukagu baina oraindik ezin dugu ezer esan. Bazkideek ere laguntza handia ematen digute eta kantxan egoten den publizitate estatikotik ere zeozer ateratzen dugu. Orain ETBrekin harremanetan gaude partiduren bat zuzenean emateko eta hori lortu ezkero laguntza handia izango litzateke. Aipatutakoaz gain, laguntza publikoak ditugu Foru Aldunditik eta Udaletik.

**- Ilusioz beterik zaudete; zein da zuen helburua?**

- Mailari eustea, jakina. Dena dela, mailaz igo arren ez dugu fitxajerik egin, gure filosofia herriko gazteekin jolas egitea da eta. Gazte hauek maila horretan erantzuten ez badute jeitsi egingo gara, inolako arazorik gabe. Gure mailan jokatu behar duten talde gehienek gutxienez bi atzerritar dauzkate taldean; guk, berriz, etxeko mutilez osatu dugu taldea. Etxekoak eta Eskola Politeknikoan ikasten duten hiru gazte.

**- Beraz, taldean egongo dira aurpegi berri batzuk?**

- Eskola Politeknikoan ikasten duten Zumaiako hiru gazte fitxatu ditugu: Ibon Enbil, Ibon Azkue eta Jokin Esnal. Hauen gainean esan behar da iaz ere gurekin entrenatu zutela. Hauez gain, Ermuako bat dago taldean, Mikel Aja, baina gainontzekoak arrasatearrak dira.

**- Zein talderen kontra jokatu behar duzue aurten?**

- Lehen maila 8 taldeko 4 multzotan dago banatua eta 2 fase daude. Lehen fasean, Torrelavega, Ereintza, Zarautz, Zaragoza, Burgos, Canarias irletako Telde eta Trapagaranen kontra jokatuko dugu. Fase hori bukatuta, lehenengo 4en artean sailkatu ezkero, ohorezko mailara igotzeko lehiatu beharko genuke, azkenengo lauen artean geratuko bagina 2. mailara jeisteko.

**- Erronka handi honen aurrean beldurrik bai?**

- Beldurrik ez daukagu, maila badugula uste dugu eta. Beharbada, oso talde gaztea delako trebatu gabe egon daiteke maila honetan. Baina gazte hauek duten ilusioa itzela da; duten guztia kantxan emateko gertu daude.


ARGI PLASTIC

• PVC eta Aluminioan egindako leihoak, ateak, manparak...
• Lantegitik zure etxera zuzenean

Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik

Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30

ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA

BAZAR TOKI ON

## EMAITZAK

**Futbola**

3. maila Mondra1 Santurtzi 0
Emakumeak: Mondra 5 - Lizardi 0
2. erregionala: Aloñamendi 1 - arrasate 1
Ohorezko liga: Mundaiz 0 Mondra 4
2. jubenilak: Mondra 1 - Uda 1
1. kadeteak: Mondra 5 - Mutriku 0
Infantilak: Idiazabal 2 - Arrasate 1
Hurrengoa:
3. maila: Ondarrua- Mondra. Igandea

**Futbito**

Lehen nazionala: Arrasate 4- Madarias 8
2. maila: Donuts 4- Arrasate 4
Hurrengoa:
Lehen nazionala: Sestao - Arrasate. Las llanas 12etan, igandea.
2. maila: Arrasate- Betikoak. Musakola 5etan, Larunbata.

**Saskibaloia**

EBA liga: CAB Coruña 77- Urbina-Maltzaga 52
Hurrengoa:
EBA liga: Urbina-Maltzaga- Señorio de Zuasti. Iturripe, 6'30etan, larunbata.

**Pilota**

Jubenilak eskuz banaka: Arrasate 5 -Billabona 18
Nagusiuak eskuz banaka: Arrasate 18 - Deba 9
Nagusiak eskuz binaka: Arraste 22 - Deba 10
Kadeteak: Billabona 22 - Arrasate 14
Jubenilak eskuz binaka: Anoeta 22 - Arrasate 16
Hurrengoa:
Kadeteak: Arraste - Zumarraga. Iturripen 11etan Larunbata.
Jubenilak eskuz binaka: Arrasate - Idiazabal. Iturripen 11etan Larunbata.
Jubenilak eskuz banaka: Lazkoa - Arrasate.
Juniorrak: Segura - Arrasate.
Nagusiak eskuz banaka: Aretxabaleta - Arrasate
Nagusiak eskuz binaka: Elgeta - Arrasate.

**Eskubaloia**

Estatuko lehen maila: Valle de Trapaga - Arrasate. Larunbata

# Donostiako maratoian arrasatearrak

**Arrasatek** izango du ordezkaritzarik igandean jokatuko den Donostiako maratoian. Arrasateko atletismo taldeak hasi ditu entrenamenduak eta maratoiari begira zenbait atleta prestatzen ari da. Cesar Diez korrikalariak, Santi Perez entrenatzailearen laguntzat, prestaketa berezia egin du iganderako. Bere denbora 2 ordu 39' 08"koa da baina igandean 2 ordu 35' 00" denboran uzteko ahaleginak egingo ditu; lortu ezkero Espainiako txapelketan parte hartzeko beharrezkoa den denbora izango luke. Pili Valdezate eta Mª Jose Gil ere denbora hobetzen ahalegin-duko dira. Hala ere,esan beharra dago une honetan biek duten denbora oso ona dela. Aipatutakoez gain, igandeko maratoian egongo da arrasatear gehiago.

Bestalde, Arrasate atletiko taldekoek esan digutenez, hasi dira entrenamenduekin, beraz, kirol hori egiteko gogoaz norbait balego entrenamenduak asteburuetan goizeko 10.30etatik aurrera izaten dira Iturripeko pistan. Txandala eta zapatilak eramatea nahikoa da atletismoa egiteko.




LORAMENDI-N



# IKASTAROAK

## ☛ EUSKAL DANTZAK (LORE GAZTEAK)



- 14 urtetik gorakoentzat
- Urriaren 14tik abenduaren 16ra
- Ostiraletan, 7etatik 8.30etara
- Matrikula:1.000 pta

## ☛ SALOIKO DANTZAK (VALSA,TANGOA,ROCK&ROLLA,...)

- Urriaren 20tik abenduaren 15era
- Ostegunetan, 7.30etatik 9.30etara
- Matrikula: 10.000 pta (7.000 ikasle eta langabetuentzat)



## ☛ JAZZ-DANTZA MODERNOA

- Arnaldo Pattersonen eskutik
- Azaroan, larunbat arratsaldetan
- Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat)

## ☛ SALSA

- Arnaldo Pattersonen eskutik
- Azaroaren 14tik 25era
- Astelehen, asteazken eta ostiraletan
- Goizez zein arratsaldez
- Matrikula 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat)

## ☛ ARGAZKIGINTZA

- ASA taldearen eskutik
- Hastapen maila:urriak 25 - azaroak 24: guztira 20 ordu
- Astearte eta ostegunetan
- Matrikula 3.000 (1.500 ikasle eta langabetuentzat)



**IZEN EMATEAK:GAZTEENTZAKO INFORMAZIO BULEGOAN**

**TFNOA:770065**

arrasateko udaleko gazte-zerbitzua



Udal banda, 1945ean. Gillermo Lasagabasterren omenaldia.

**Arrasateko** bandak historioa luzea du. 1878an sortu zuen Rodriguez izeneko maisuak eta 1922an Udal Banda bihurtu zen, Gregorio Solabarrietan zuzendari zela. 1928tik 1960ra bitartean Justo Munarriz izan zen Zuzendari, eta Juan Arzamendi handik aurrera.

1923an bi banda izan ziren herrian eta besteak Trinketean jotzen zuen. Gerra denboran ere iraun zuen bandak, asko bajatu zen arren (16 musikari bakarrik geratu ziren). 1945eko maiatzean atera zen erretratu hau, Gillermo Lagabasterri jubilatu ostean egin zitzaion omenaldi egunean. Betirako Ohorezko Musikari izendatu zituzten garai hartan Lasagabaster bera, Jose Mari Zarraoa eta Rufo Aranbarri, bandako musikaririk zaharrenak. Omenaldi egunean kontzertua eman zuten plazako kioskoan eta Zentro Katolikoan bazkaria egin zen gero. Bertako terrazan atera zien argazkia Valeriano Martinezek musikari guztiei.

Goitik ezkerretik hasita: **Miguel Errarte**, **Nikolas Zarraoa**, **Franzisko Urrutia**, **Garro**, **Boni Uriarte**, **Mariano Azkarate "Zelaitxo"**, **Faustino Balanzategi**, **Julio Gorroñogoitia**, **Jabier Mendieta**, **Pako Aranbarri**, **Luis Agirre**, **Bixente Aranbarri**, **Donato Arregi**, **Rafael Escudero**, **Herrera**, **Jesus Ortuoste**, **Alberto Aranburuzabala**, **Herrera**, **Lorentzo Aranbarri**, **Adolfo Gomez**, **Zeferino Mendizabal** eta **Hipolito Uriarte**.

Bigarrenean: **Miguel Sampedro**, **Fernando Amozarrain**, ezezaguna, **Jose Mari Zarraoa**, **Domingo Arzamendi** (Alkatea), **Gillermo Lasagabaster**, **Justo Munarriz** (Bandako zuzendaria), **Jose Mari Lasagabaster**, **Jose Lazkano "Monte"**, **Wenceslao Lasagabaster "Bentxes"** eta **Rufo Aranbarri**.

Behean ezkerretik, **Pedro Barrutiabengoa "Txirri"**, **Inazio Olazabal "Kinke"**, **Jabier Usobiaga**, **Luis Zufiria**, **Luis Martinez**, **Jabier Etxeberria**, **Juan Arzamendi** eta **Juan Jose Garmendia**.




# *Fernando Royo*
# Begetarianismoaren sekretuak



**"Filosofia kontuek" eraman zuten belarjale izatera duela 10 urte. Janariekin esperimentatzen hasi eta bere gorputzarekin hobeto sentitzen zela konturatu zen. 38 urteko bergarar honek, "Sukaldaritza Begetarianoa" ikastaroa emango du AEDn.**

**— Elikadurak osasunarekin lotura handia duela esan ohi da. Zenbaterainokoa?**

— Lotura osoa du, osasuna eta elikadura ezin dira separatu. Bizi ahal izateko arnasabezain garrantzitsua da elikadura osasunarentzat, baina jendea ez da konturatzen. Enpresa eta autopistei buruzko formazio handia dauka jendeak baina ez osasunari buruzkoa. Gainera gaixotasun asko elikaduraren bitartez sendatu edo prebeni daitezke.

**— Zein da sukaldaritza begetarianoari buruzko ikastaroaren edukia?**

— Asteburuko ikastaroa bada, erreza izaten da: gosaria, bazkaria eta afaria egiten ditugu eta ikasleek ikusi egiten dute nola eta zer prestatzen dugun. Gure helburu nagusia jaki bakoitzak zer onura ekartzen digun ikustaraztea da; fruituen eta lekarien aportazioa adibidez, desberdina da; norberak egiten duen lanaren arabera, edo behar duen energiaren arabera jaki desberdinak komeniko zaizkio. Guzti horren berri eman nahi dugu ikastaro honetan.

**— Fruta adibidez, noiz jan behar da: jatorduaren aurretik edo ostean?**

— Aurretik. Fruta oso erraz digeritzen da, ura bezain errez. Janaria estomagoko zulo batetik ateratzen da eta janari arinak errazago ateratzen dira, beraz, lehenengo gauza astunak eta gero arinak jaten baditugu, digestioa trabatu egiten dugula esan daiteke; hori dela eta, hobe da lehenengo gauza urtsuak jatea.

**— Ikastaroak izango du alde praktikorik?**

— Bai, jakina eta gainera, ohizko errezetatik irteten saiatuko naiz, hau da, janariarekin esperimentatzen jakin behar da.

*Osasunari dagokionez, euskaldunok ezin gara harro egon.*

**— Euskal Herriko sukaldaritza oso prestigiotsua da. Zer diozu?**

— Bai, egia da Euskal Herrian oso genero ona dago, gainera jendeari ez dio axola diru asko gastatzea jaki onak erosteko: oso sibaritak gara, baina osasunari dagokionez, ezin gara harro egon, batez ere gizonezkoetan: horrenbeste txikitorekin eta hemen dagoen afari ohitura... sekulako sabelak ikusten dira.

**— Produktuen kalitateaz, barazkien egoeraz etabar, zer iritzi duzu?**

— Momentu honetan, begetarianoen eta haragijaleen egoera berdina da, bi elikadura mota hauetako produktuak oso egoera txarrean etortzen dira eta. Dena dela "merkatu biologikoa" abian dago eta zorionez, indar dexente hartzen ari dela esan daiteke. Bestalde, hemengo baserritarrak nahiko garbiak dira eta hori ere oso ondo dago. Andaluziakoak adibidez, oso zikinak dira eta bertako barazkiak jatea beldurgarria da.

## LABURRAK

### Arrasate Musikalen kontzertu egitaraua

Arrasate Musikalek kontzertu egitarau interesgarri bat prestatu du datozen hilabetetarako.

Urriaren 23an Errusiako Orkestra Nazionala etorriko da gurera, Mikhail Pletnev-en zuzendaritzapean. Orkestrak Mozarten eta Prokoviev-en 3 obra eskainiko ditu. Arrasate Musikaleko bazkideek urriaren 20rarte jaso ahal izango dituzte sarrerak akademian, 1.000 pztatan. Gainontzekoek urriaren 21etik aurrera 2.500 pztatan eskuratu ahal izango dituzte sarrerak, Mendi tabernan.

Azaroari dagokionez, herriko musikariek eskeiniko dute kontzertua: Arrasate Musikaleko Kamarako Orkestrak, abesbatzak, bibolinjole eta pianistek, kontzertua eskeiniko dute akademian bertan. Abenduan, Letoniako Orkestra Nazionala eta Donostiako Orfeoia izango ditugu herrian bisitari eta azkenik, urtarrilean, J.O.N.D.Ek, Espainiako Orkestra Nazional Gazteak, musika emanaldia eskainiko du Amaia antzokian.

Musika klasikoa gustoko baduzu, Arrasaten bertan daukazu aukerarik onena.

FELIPE MADINA
ZURAK
Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

LOGOPEDIA ZENTRUA ARRASATE
HIZKUNTZ ARAZOAK
HIZKETA ARAZOAK
AHOTS ARAZOAK
IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK
Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

IBARRA
Garajea S.L.
EBRO
NISSAN
Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

## · AIPUA ·

*Hausnartu barik irakurtzea alper-lana da*

CONFUCIO

## · JEROGLIFIKOA ·



**Zer ehiztatu zenuen?**

## · GURUTZEGRAMA ·




J. B. AGORRIA

**Horizontalak** 1. Banatzearen egintza. 8. Mikel, Besaideko lehendakaria. 9. EROS jainkoaren kontsonanteak. 10. (Ald.) Kanpo. 11. Zenbakien zerrendan lehena. 12. Akatsik ez duena. 15. Irabazleari ematen zaiona. 16. Zilarra. 17. Alde hemendik. 18. Ari izan. 20. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. 21. Hitzarmen.

**Bertikalak** 1. Elkartasun. 2. Aztertu, miatu. 3. Sodioa. 4. Gogo bizia. 5. Letraren izena. 6. Ataskatu. 7. Lanegun. 11. BAI aditzondoaren laburdura. 13. Ez eme. 14. Ogia egiteko landare mota. 19. Idi, hitz elkartuetan.

## · HOROSKOPOA ·

**Aries** Irakurtzen hasi zarenetik, ikusmena galdu duzu.

**Taurus** Izugarria da zu "bakailua" dantzan ikustea.

**Gemini** Ez izan hain lotsagabea eta ordain itzazu dituzun zorrak.

**Cancer** Txalo bat merezi duzu aurpegia hain ondo margotzeagatik.

**Leo** Tabernetan denbora larregi galtzen duzu. Zoaz mendira!

**Virgo** Sentitzen dut, baina aste honetan kriston bixamona izango duzu.

**Libra** Txikitan lotsatia zinen eta orain, berriz, lotsagabea.

**Scorpio** Kalean ligatzen ez baduzu, mendira joan eta perretxikoak batu.

**Sagitarius** Azkenaldian kilikolo zabiltza; hankamotza ote zara?

**Capricorn** Zuk botatatzen dituzun txisteak negargarriak dira.

**Aquarius** Azkenean, datorren urtean ezkonduko zara. Zorionak!

**Piscis** Etxeko lanak egiteko orduan ere, intsumisoa zara.


**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**
**Gune susmagarriak aurkitzea.**
**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**
**Bularreko ekografiak.**
**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18**

**· TELEBISTAREN TXOKOA ·**

# Bidai bat jokuan!



ATBketan lehiaketa, guztiz berrituta datorkigu sariei dagokionez Partehartzaileek sekulako sariak irabazteko aukera izango dute: Asteartero lehian arituko diren bi bikoteek afari goxo bat izango dute jokoan, baina orain, ikusleei lehiaketan parte hartzeko aukera emango zaie: Saio bakoitzean, hurrengo astean zinean izango den filmearen gainean galdera bat egingo da. Telefonoz programara lehenengo deitu eta erantzuna asmatzen duenak, zinerako bi sarrera irabaziko ditu. Azkenik, hilean zehar puntu gehien lortu dituzten bi bikoteak aurrez aurre ikusiko ditugu hilabete bakoitzeko azken astean; irabazten duen bikoteak bidai bat etxeratuko du. Parte hartzeko zer egin behar den? 77 06 90 telefono zenbakira deitu besterik ez!

**· KOMIKIA ·**




Sagu zahar

**· PROGRAMAZIOA ·**

ATB

**17 Astelehena**
13.30etan
**Astebete** (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Mondrasport**

**18 Asteartea**
13.30etan
**Mondrasport** (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**ATBketan**

**19 Astezkena**
13.30etan
**ATBketan** (errep.)
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Hauteskundeak: Mahaingurua.**

**20 Osteguna**
13.30tan
**Hauteskundeak: Mahaingurua.** (errep.).
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Ibilixan Dabilena.**
Gonbidatuak: **Gemma Arrugaeta**; profesioz argazkilaria. Perun, Bolivian eta beste hainbat herritan lanean ibili ondoren, artzaiei buruz egindako argazki monografikoa erakutsiko digu.
**Batis Goikoetxea:** Naparra, mendizale amorratua. Aizkorri elurretan zegoela egindako diaporama izango dugu ikusgai. Erreportaia: Ultraligeroak.

**21 Ostirala**
13.30etan
**Ibilixan Dabilena** (errep.)
19.15etan
**Kukaratxa Motel**
20.00, 20.30 eta 21.00etan
**Berriak**
21.30etan
**Astebete Xabier Ibarzabal**ek aurkeztua.

**23 Igandea**
21.00etan
Mondragol.

EGVZKiGRAF
KOOP. E. S. COOP
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industriala
Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41
- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

**· SOLUZIOAK ·**

**Horizontalak:** 1. Banaketa. 8. Arana. 9. RS. 10. At. 11. Bat. 12. Akasgabe. 15. Saria. 17. Ut. 18. Aritu. 20. NUP. 21. Itun.
**Bertikalak:** 1. Batasun. 2. Arakatu. 3. Na. 4. Antsia. 5. Ka. 6. Trabatu. 7. Astegun. 11. Ba. 13. Ar. 14. Gari. 19. It.
**Jeroglifikoa:**
Orein bat.

## Etxebizitzak

- **Gatzagan jatetxea alokagai** Tfnoa: 71 51 23.
- **Lagun bila nabil** Arrasaten alokatzeko pisu bat aurkitzen hasteko. Tfnoa: 79 00 27.
- **2 pertsona behar dira** Deustun pisua osatzeko, logela konpartitzeko prest. Tfnoa: 79 48 46.
- **Pisua alokatzen da** Zabalotegi kalean (Bergaran) Tfnoa: 76 58 91.
- **Pertsona bat behar da** Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 78 13 59.
- **Neska batentzako logela** bat daukagu (sukalderako eskubideaz).Tfnoa: 79 58 22. Dei egin eguerditan edo gauez.
- **Donostian, zentruko ikasle-pisua** osatzeko neska behar da. Banakako gela. 15.400 pta. Tfnoa: 77 00 29 (goiz partean deituta hobe).
- **Donostian ikasle pisu** batean, gela bat libre daukagu alokatzeko. Interesatuta bazaude, dei egin 79 33 58ra.
- **Ikasle pisu batean** logelaren bila nabil. Arrasaten edo Aretxabaletan. Tfnoa: 39 83 73. Dei egin asteburuetan.
- **Bere etxean ikasle bat** hartuko lukeen familia bat behar da. Tfnoa: 64 08 76. 8'00etatik 10'00etara.
- **Langile batek etxebizitza behar du** alokagai Arrasaten. Tfnoa: 88 25 71.
- **Bi ohetako gela alokagai.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Pisua salgai** Okendo kalean, 1 - 5º A. Tfnoa: 79 94 36. Arratsaldez deitu.
- **Pisu bat daukat alokagai.** 4-5 pertsonentzat. Erdikaldean. Tfnoa: 79 18 03.

## Lana

- **Klaseak ematen ditut:** Matematika, kontabilitatea eta matematika finantzieroa. Tfnoa: 77 00 23. Gloria.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta lan bila nabil. Dei egin 79 98 20 tfnora. Aitziber.
- **Esperientziadun estetizista** naiz eta etxeetara joanda lan egiten dut. Tfnoa: 79 98 20. Aitziber.
- **Kirol denda batean lan egiteko** mutil euskalduna behar da, 20 urtetik gorakoa. Interesatuek bidali curriculum vitae-a 259 posta kutxatilara lehenbait lehen.
- **Neska eskaintzen da** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko, edo laguntzaile gisa taberna baten, jatetxean sukalde laguntzaile, pratelak garbitzen...Tfnoa: 79 96 10 / 79 72 12.
- **Ingeles filologian** lizentziatuak klaseak ematen ditu azterketa prestakuntza, taldeetan nahiz banaka. Maila guztiak. Tfnoa: 79 86 33.
- **Bibolin klaseak** ematen dira. Adin guztiak. Tfnoa: 79 25 85.
- **$^1/_2$ eta $^1/_4$ko bibolinak salgai.** Egoera eta prezio onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Erdiko kalean pisu on bat** alokatzen da, 4 edo 5 pertsonentzako. Dei egin 77 03 38 / 79 18 03 Tfnoetara.
- **Pisu bat erosi edo alokatuko** nuke. Tfnoa: 79 31 25
- **Emakumea** umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest dago. Tfnoa: 79 60 18. Mª Carmen.
- **Lizentziatuak** enpresa zientzietako klase partikularrak emango lituzke. OHO, BBB edo UBI mailatan. Kontabilitatea eta matematikak. Tfnoa: 79 16 99.
- **Emakume euskalduna** etxekolanak egin edota umeak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 07 73.

## Salerosketak

- **Ia berria dagoen** akordeoia saltzen dut. 120 baxu. Beltza. Tfnoa: 79 80 91.
- **PUCH Condor ziklomotorea salgai.** Egoera onean. Tfnoa: 79 66 92. Juan.
- **Akordeoi kromatikoa** saltzen dut. BIGINI markakoa eta 120 baxukoa. Tfnoa: 79 91 30. Nerea.
- **OPEL VECTRA** (SS-AH) salgai. 32.000 Km. ditu. Tfnoa: 79 62 85.
- **Eskiatzeko ekipoa salgai:** 1,80m.etako DINASTAR markako tablak. LOOK markako fijazioak eta bastoiak. Prezioa: 15.000 pta. Interesatzen bazaizu dei egin 79 17 96 tfnora.
- **Salgai:** - PHILIPS telebista 20 hazbetekoa. - 2 radiadore FAGOR programadoreaz. - Teklatu-organoa LOWREY. Oso merke. Tfnoa: 79 82 47. Gauez.
- **Alarma sistema bat,** denda edo taberna batentzako, salgai. Tfnoa: 79 53 18. 70.000 Pta.
- **100 litrotako termoa salgai.** Egoera onean dago. Tfnoa: 79 07 73.

## Denetarik

- **Jersei bat aurkitu da,** urriak 6ean, Olarte kalean, kiniela bulego ondoan. Galdu duenak dei egin dezala 77 08 15 tfnora.
- **Lan egunetan** egunero Gasteiza 2-3ak inguruan kotxez bazoaz, dei egizu 79 50 53 tfnora.
- **Xaramela inguruan** kartera galdu zitzaidan astelehenean (urriak 3). Norbaitek aurkitu baldin badu, mesedez jar dadila nerekin harremanetan. Nestor Arana.Tfnoa: 77 04 50.

# Aste Gazte

### Irakasle Ordezkapenak

• Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzak, ondoko irakasgaietan ordezkapenak egiteko zerrendak zabaldu ditu. O.H.O.: a) hezkuntza berezia (euskaraz), jardun laburra eta osoa. b) ingelesa (euskaraz), jardun laburra eta osoa. d) Gorputz-hezkuntza (euskaraz eta gaztelaniaz), jardun osoa. e) Eskolaurrea (euskaraz) jardun osoa. Epea: urriak 30.

### Bekak

•Ingurugiro arloan prestatu eta ikertzeko zortzi beka deitu ditu Eusko Jaurlaritzak. Goi mailako unibertsitate tituludunei zuzenduak. Epea: urriak 23.

### Ikastaroak

• Euskal Dantzak, Lore Gazteak taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoei zuzendua. Ostiral honetatik hasita (hilak 14) Santamasak arte, ostiralero 7.30etatik 9etara. Matrikula: 1.000 pta.

• Saloi Dantzak (tangoa, valsa, rock & rolla, rumba,...), urriaren 20tik abenduaren 15arte, ostegunetan, arrats. 7.30etatik 9.30etara. Matrikula: 3.000 pta (1.500 ikasle eta langabetuentzat).

• Famili eta gizarte-hezketarako zentruak, larrugintza ikastaroari hasiera emango dio urriaren 18an. Astean bi egun, 9.30etatik 11.30etara. Prezioa, helduek 5.000 pta eta gazteek 3.000 pta.

### Lehiaketa

• Eibarko Udalak 94ko "San Andresetako" kartelaren lehiaketarako deia egin du. Gaia: norberaren aukeran. Idatzia: Sanandresak Eibarren 1994. Neurriak: 70x50 zm. Kolorea: norberaren aukerakoa. Saria: 60.000 pta. Epea: urriak 28.

**"Gazteegiak dira -gaztetasun defektu bat ote da?- ezeren beldur izateko."**
**"El manuscrito Carmesi". A.Gala.**

**Informazio gehiago:**
**GAZTE ZERBITZUA**
**Tfnoa: 77 00 65**

# Jose Aranzabal

S. ANDRES AUZOA ARRASATE Tfnoa: 79 18 92

# %40 BEHERAPENA

**Sukaldeko altzaritako 5 modeloren promozio mugatua, 1994 irailaren 5etik aurrera**

Sartu sukalderaino eta aukeratu:

- NALIA
- LINEA
- CAPRI
- VERONA
- OXFORD

6 URTETAKO GARANTIA

FAGOR

SUKALDEKO ALTZARIAK

**Serieko Airbag-a**



**Egitura indartua eta alboetan babeserako barrak**



**Fiesta S.i. Ohizkotik kanpo. Jende ez-ohizkoarentzat.**




# Fiesta S.i. berria




Ford

**MUGARRI**